

## **50 URTE ETA 0 EGUN**

50 urte eta 0 egunekin hil zen emakumea: Tere, nire bizilaguna. Hori da, hitzartutakoaren arabera, bataz beste bizitzeko araututa dagoen adina. Hala ezarri eta sinatu zuen Black Jaunak. Black Jauna ez da jainko bat, nahiz eta baduen jainko trazarik. Jainko tankera du hilezkorra delako. Ez da Jainkoa lana egin behar duelako. Zehazki, heriotzen kostua zenbatzea dagokio. Mundu honetako gauza inportanteak zenbatu behar dira. Green Jaunak dirua zenbatzen du, Blue Jaunak ura, Brown Jaunak gasolina eta Black Jaunari, berriz, heriotza dagokio.

Jaunak dira denak gure munduan gauza inportanteak jaunek zenbatzen dituztelako. Mundu honetan gauza inportanteak zenbatzen dira ez dutelako beti kostu bera izaten. Argindarrak, gasolinak, ez zuten berdin balio atzo eta herenegun. Euro batek 1,09 dolar amerikar balio du oraintxe eta dolar amerikar batek 6,37 Yuan txinatar. Hiltzearen kostua ere ez da bera Euskal Herrian eta Sierra Leonan, Sirian eta Finlandian. Merkegoa da etxegabetuaren heriotza bizilagunarena baino, paperik gabearena hiritarrarena baino. Arestian libretatxoa baliatzen zuen Blackek eta egun *excel* batean egiten du bere lana.

Heriotzaren kostua ere erregulatzen du Black Jaunak. Adibidez, Frantzia bizia luzatzearen truk, Gazako heriotzak igo zituen. Europan gerra badago, bertako biziak balioztatzeke munduko beste errefuxiatu batzuen merketzen du. Beste jaunekin batera egiten du lan Black Jaunak. Horregatik, heriotza merketzearen truk garestitzen da bizitza, eta alderantziz.

*Hemendik kendu, hor jarri eta apurtxo bat patrikara* kantatu ohi dute ahapeka jaunek. Hau garestitu, hura merketu eta, deus begira ez duenean, eskupekoa etxera. Hori da gauza inportanteak zenbatzen dituzten jaunen leloa. Hori gertatzen da gasolinarekin, diruarekin eta heriotzarekin.

Aunitzetan, heriotza-krisiak datoz. Halakoetan, zera esan ohi du irratian Black Jaunak: “zuen aukeren gainera hiltzen zarete”. Eta hitzen zaizu bizilaguna, 50 urte eta 0 egunekin.